

bidegileak



Julita Berrojalbiz (1923-1998)

Egilea:

ANGEL ZELAIETA



Julita Berrojalbiz (1923-1998)

zagunen eta tartekoen artean Juliana, Juli eta Julita deitu ohi zitzaion. Gehien-gehien Julita deitu ohi genion eta, irakurlego ororen baimenarekin, horrelaxe deituko dugu hemen ere Ajangizko alaba ausart hau.

«Batek daki kartzelara eramango bagaituen ere, baina hasi egin behar dugu etxerik etxe» izan zen bere bizitzako abiapuntu garrantzitsuenetarikoa.

Ajangizko baserritik Bilboko kalera

Julita Berrojalbiz Berrojalbiz Gernika ondoko Ajangizen jaio zen, Mendieta auzoko Urrutia baserrian, 1923ko otsailaren 19an, Juan Pedro Berrojalbiz Uriarte eta Teresa Berrojalbiz Abaituagandik. Aita gizon ikasia zen, urte batzuetan apaiz ikasketak eginak baitzituen, nahiz apaiztegitik irten eta nekazaritzan aritu. Urte batzuetan Bake Epaille ere jardun zuen.

Ama, etxekoandre. Hiru seme-alaba izan zituzten: nagusia, Julita.

Julitaren euskararekiko maitasuna pizteko, aldamenean bizi zen Felix Obieta apaizak garrantzi handia eduki omen zuen. Euskaltzale bera, Kristau Ikasbidea irakastearekin batera, euskara maitatzen ere ikasi omen zuten harengana katekesira joaten ziren umeek.

Giro euskaldun eta euskaltzalean hazi zen eta, bost urte bete zituenean, Eskola Publikoan hasi, erdaraz «sí» ere jakin gabe, harik eta 12 urte bete arte. Hamar urterekin Bilboko mojatara aldatu eta gero, aita kartzelaratzean, Gasteizko teresianoetara doa, batxilergo nagusia egitera.



Julita Berrojalbiz Gernika ondoko Ajangiz herrirka honetan jaio zen 1923an

Medikuntzatik Magisteritzara

Batxiler Nagusi titulua lortu ondoren, Julitaren asmoa Medikuntza ikastea zen, baina, tamalez, ezin izan zuen bere nahia bete. Ez egon garai haietan hain ondo ikusia emakumeek horrelako ikasketak egiterik. Magisteritza, ostera, hainbat baserri-alabak egin ohi zuen.



Julita Berrojalbiz batxilergoa ikasten ari zen garaian

Bidegurutze honetan zela, Bilbon mutil bat ezagutu eta maitemindu egiten dira. Jose Andres Andia zen eta ezkongai bihurtu ziren, oso gazterik.

Zer ikasi behar zuen Julitak? Medikuntza egin nahi zuen arren, bai gurasoek bai nobioak asmo hori burutik ken zezan egin zioten.

Amore eman, Medikuntza ikastea baztertu, eta beste aukera baten bila, Kimika ikastea erabaki zuen, Zientzia saileko ikusi ere egingen baitzuen bere burua.

Nahiz eta gurasoek eta ez hain pozik ikusi, badoa Valladolidera Kimika ikasketei ekitera, baina azkenean hau ere albo batera utzi beharrean aurkitzen da, ingurukoengan horretarako berotasunik ez daukala eta.

Magisteritza ikasteari ekiten dio. 26 urte dauka gaintitzean.

Geroxeago, 1951ko irailaren 27an, Jose Andresekin ezkontzen da, Begoñako santutegian. Jose Andres abokatua da, eta Bilbon jartzten dute egoitza, Rodríguez Arias kalean.



Teresianoetako ikasleekin, Julita behean ezkerretatik lehena

Euskararen arloko egiten

Ikasketak gaztelaniaz eginak bazituen ere, Kristau Dotrina, aldiz, euskaraz ikasia zeukan. Honela, beraren esanaren arabera: «Bil-bora etorri nintzenean, ezkontuta, esan neban, bueno, ez daukat zer eginik eta gauza bat egin behar dot, alfabetatu egin behar naz. Nik irakurtzen banekien, *Kristau Ikasbidea* euskaraz ikasi neban eta, baina gramatikarik, ez. Eta jo neban, ba... Xabier Peña zen orduan Euskaltzaindian gramatika emoten ebana, 1952-53 ikasturtean, eta beragaz ikasi neban. Erdaraz ikasten zen orduan euskarazko gramatika».

«Eta gero umeak eduki nebazan, hiru umetxo, neskatiltxoa —Isabel—, mutiltxoa —Ander— eta beste mutiltxo bat —Jabier—, eta gu-rean euskaraz bakarrik egiten zen, nik berba bat erdaraz egiten be ez neutsen izten; eta neskatoxoak lau urte egin zituenean, hasi nintzen pentsatzen, ai, nora nik eroango?»



Julita Bizkaiko ikastolen sorreran: San Nikolaseko hasiera

Julitak hasiera-hasieratik hartu zuen parte Bizkaiko ikastolen sorreran. Bilboko lehenengo ikastolak, San Nikolas parrokiako katekesia praktikatzeko erabiltzen zituzten geletan, izan zuen hasiera, 1957ko urriaren 9an.

Lege aldetik, eta 1945eko «Ley de Instrucción Primaria» delakoaren arabera, gaztelaniaz baino ezin zen irakatsi. Behaztopo latza euskara eta euskaraz irakatsi ahal izateko. Egia esateko, «klandestinoki» jarduteko asmoa zeukaten, Elizaren babespean edo.

Era berean, haize berriak ote zetozen ematen zuen, Joaquín Ruiz Jiménez en ministroaldiaren ondoren, 1951-56 urteetan, edota Rubio García-Minaren ministroaldiaren gestio barnean, «Plan Nacional de Construcciones Escolares» dela eta.

Giro honen barnean, Xabier Peña bultzatzailerela, Donostian Elbira Zipitriak egiten ziharduena jarraibide harturik, San Nikolas parrokiako katekesira jotzen dute gela bila. Andereñoak Julita, Agurtzane Alberdi, Arantza Foruria eta Maria Angeles Garai dira.

Medikuntzari uko egin eta Magisteritza ikasi zuen Julita Berrojalbizek



Bilboko Solokoetxe izeneko eskola honetan ikasten zuten neskek Magisteritza, 1913an inauguratu zenetik

Ikastola horretako sorreran lan handia egin zuten Julitak eta eliza hartan apaiz zen Jesus Gonzalezek. Eurokin batera, Agurtzane Alberdi eta Maria Angeles Garai andereñoak izan ziren; ikasleak, hamalau ume. Honetxek: Ane Miren Zubiri Zearra, Jasone Irarragorri Bigera, Nerea eta Idoia Gandariasbeitia Zubizarreta, Isabel eta Ander Andia Berrojalbiz, Patrik Markoartu Rotaetxe, Iñigo eta Paul Muñoyerro Ajuriagoxeaskoa, Arantza Foruria Atxabal, Mikel Rotaetxe Gallano, Jon Bilbao Saralegi, Gaizka Jiménez Larrea eta Edurne Alegria Guerediaga.

Guztion buru edo lehendakari, Sabin Zubiri. Guztion artean, andereñoei hilero 1.500 pe-zeta inguru ordaintzen zaizkie. Esan bezala, 1957ko urriaren 9an eman zitzaion hasiera. Lehen uneko 14 hurrek euskara dakite. Otsailean beste 14 erdaldun gehitzen zaizkie. Txikienak hiru urte dauka; sei, zaharrenak.

Ikasturte bukaeran, baina, Gulpide gotzainak parrokiako lokalak ikastolak erabil ditzan debekatzen du, ez die horretarako baimenik ematen. Ez omen zekien han ikastolarik zegoenik ere.

Deigarria litzateke Gurrupidek ez jakitea San Nikolasen zer gertatzen zen. Baietz jokatu genuke: bai Gurrupide eta bai beronen babesle zen Javier de Ybarra y Berge «euskalerrriakoa» jakinean ziratekeen, nahiz eta salaketaren bat jasotzean, ezjakinarena egin, Aginte zentralaren aurrean. Zehatzago ari daiteke Josune Zearra honetaz: «Gurrupide Gotzainak zarratu egin eban ikastolea, Gobernadorearen aginduz».

San Nikolasetik Iralabarriko frantziskotarretara

«Urte bete —dio Julitak— han egon ginen, San Nikolasen, gero joan ginen Iralabarriko frantziskotarrengana, haiek egiten euskuen beste tokitxo bat, eta hantxe egon ginen urte bete osoa, eta beste urtea hasi eta hiru hilabetera inspektorea eta polizia joan ziren eta itxi eben ikastola.»

Iralabarriko frantziskotarren komentuan, aita Eugenio Agirretxek asko eta asko babestu-



Mendia eta itsasoa asko maite zituen Julita Berrojalbizek

rik, 1959ko urtarrilaren 9an hasi zen ikastaroa, hots, lau hilabeteko atzerapenaz. Haurrak, hiru eta zortzi urtekoak, azkenerantz, 48. Andereñoak, Agurtzane Alberdi, Severina Mardaraz, Estibalitz Gereño eta Karmen Gangoiti. Guztion kudeatzaile, Julita.

Ikasle gehienak Abando eta Bilbo Zahar ingurukoak zirelarik, Iralabarriko komentua alhora xamar gelditzen zela eta, autobus txiki bat erosten dute, garraiorako. Horrez

gain, egoitza egokitu beharrean aurkitzen dira: guztirako, 50.000 pezetako mailegua hartzen dute Banco Guipuzcoanon.

Ez zuen saio honek ere jarraipenik izan: Orozkon guardia zibil batengandik jaioriko Pablo Sánchez Azpuru inspektoreak, ikastola «klandestino» honen berri jakin, bertora aurkeztu, eta Gobernadore Zibilagana salaketa helarazi zuen, legez kanpkoa zelako, euskara irakasten zuelako eta ageri-agerian separatista zelako...



Julita ezkontza egunean, zoriontsu



Jose Andres Andia bilbotarrarekin ezkondu zen Julita 1951ko irailaren 27an

Guzti horregatik, «debe procederse a la clausura inmediata» ziotson Gobernadoreari.

Ondorioz, Sabin Zubiri, Estibalitz Gereño, Karmen Gangoiti, Seberina Mardaraz eta Agurtzane Alberdi isunaz zigortuak izan ziren, eta «ikastola» hertsia.

Zigor hauei eta Gulpide gotzainaren jokaerari buruz, zera esaten zigun Josune Zearrak, Begoñazpi Ikastolaren sortzaileetakoak eta Irala-barrin zigorturiko Sabin Zubiriren emazteak: «“Guk Gotzain jaunaren baimena daukagu” esan geuntsan Gobernadoreari; ez zan idatzizkoa, baina bai ahoz. Ezetx inoskun Gobernadoreak. Orduan joan ziran Gulpide Gotzainarengana Sabin, Bernardo Mesanza, Iñaki Beristain, Jose Ramon Markoartu... Besoak altxata agertu jaken, teatroan legez: “Txarto ulertze bat egoala [...] Errejimenagaz egoan, ez eban gura gugaz txarto geratzerik, baina eurrekaz ondo, eta bietara ezin da, ezta?”».

Elizaren magaletik sukaldeetara

Bidegurutze ilun honetan, badio Julitak: «Nik Magisterio deukot eta niri irakaskintza atsegin zait, gainera ez nituen neure umetxoak erdarazko toki batetara bidali nahi eta zera esan genuen, batek daki kartzelara joaten bagaran, baina hasi behar dogu etxerik etxe. Eta hainbeste urtetan holan ibili ginen».

Une honetan Julitaren jarrera eta erabakiak berebizikoak dira Bizkaiko Ikastolen garapenerako. Izan ere, halako debeku eta hertsialdien ondoren, hainbat gurasok euren haurren eskola-etorkizuna kolokan jartzen dela ikusten dute. Hainbat haur Eskolapioetara, Jesuitetara, Santiago Apostolera, Teresianoetara... doaz. Zenbait gurasok «Zuen seme-alaben heziketa jokoan darabilzue», «Ez daukazue eskubiderik, egiten duzuen egiteko» gedar egin ohi zion.



Katekesian ikasi zuen Julitak euskaraz irakurtzen eta euskara maitatzen

Julitaren eraginez, hala ere, hainbat guraso biltzen dira berriz ere. Zenbait ama, zehazkiago, agian; agian, zenbait senarri ere jarkeginez: «Gizonok orduko proiektua itxia eben eta ha guztia amaitutzat gelditu zan [...] Jarraitzea erabagi genduan [...] Gauzak ez geunkazan argi, baina gure borondatea eragozpen guztiak baino handiagoa zan [...]» zioen Julitak. Josune Zearrak ere bazioskun: «[...] guk, emakumeok, —gizonak baino adoretuago gu—, eta neu baino gehiago Tere Rotaetxe eta Julita Berrojalbiz».



Xabier Peña Agurtzane Alberdi andereñoarekin

1960. urtea da, urte eraginkorra Euskal Herriarentzat: Agirre lehendakaria hiltzen da, 339 apaizek eskutitz ospetsua igortzen dio Eliz Agintaritzari. ETA jaiotzen da.

Bost sukaldetan dihardute, hasieran. Sukalde-ikastola hauek Bilbo osoan zehar «ireki» ziren: Espartero, C. Volantín, Urkixo Zumardia, R. Arias, M. Agirre, Gran Vía, Henao, Lersundi, Rekalde Zumardia, G. Salazar, Irala, Labayru, P. A. Kareaga, Barrainkua, Mazarredo, G. Salazar, R. Arias, Aiala, Espartero, Henao, Egaña, F. Sarasate eta Indautxu Plaza kaleetan. Julitaren beraren etxean 12 haur ari dira. Isabel alaba nagusia Tivoliko Esklaboetan matrikulatu dute, eta bi txikiak, etxeko sukaldean.

Julitak berak bilatzen ditu sukalde guztietarako andereñoak. Hauen artean, gerra aurrean ere andereño izaniko Pilar Muniategi. Euskara aldetiko prestakuntza Maria Angeles Garai eta Julitaren etxean egiten dute, sarritan Gotzon Garitaonaindia eta X. Peña maixu direla.

Sukaldeetako jarduna «klandestino» girokoa da: «Habíamos recibido ciertas consignas para casos de alguna dificultad; es decir, si alguien nos preguntaba sobre nuestra permanencia en el piso, debíamos decir que veníamos de jugar o de celebrar un cumpleaños. Nunca debíamos aludir a la ikastola» esan du ikasle klandestino izan zen Jasone Iraragorrik.



Xabier Peñaren ikasle eta lagun taldekoa izan zen Berrojalbiz

Resurrección María de Azkue ikastola


Auzia, baina, ikastolak legeztatzea zen. «Gero —dio Julitak— 1965eko Irakaskintza Lege Berriak *Libro de Escolaridad* edota *Cartilla de Escolaridad* beharrezko jartzen zituen, Batxilerra egiten hasi ahal izateko, eta esan eben ofiziala izan behar ebala irakaskintzak eta, zentru ofiziala ez bazen, umeek ondoan zeukaten Eskola Publikora joan behar zutela esaminatzera.

Orduan Xabier Peñarengana jo naban eta hark Alfontso Irigoienengana bidali ninduen. Irigoien Diputaziora joan zen eta han emon euskuen pa-

per bat, eta paper horrekin inspektziora joan ginen.

Inspektorea Iralabarri itxi euskuna zen. Baina, antza, damutu egin zen eta gure alde jarri: «Legea bete behar dozue» esan euskun.

Diputaziora joan eta lege guztien kopia atera eban eta paper guztiak eroan eta gero han, Elkano 6an gure lagun batek eukan etxe bat hutsik eta hantxe sartu ginen. Hara eroan gen-



San Nikolas parrokiak katekesiaren izenean babestu zuen ikastola

duan Gotzaina eta Gobernadoreari be karta “Besamanos” bat bidali neutsan eta inspektoreari be bai. Itzela izan zen. Ospatu genuen.»

X. Peñak aholkaturik, Julitak Euskaltzaindian aurkitzen du babes eta orientabiderik: «Euskaltzaindiak eskeini euskun laguntza eta babesa, geroari begira, erabakiorra izan zan: Euskaltzaindikoko Idazkari lanak orduan egiten zituan Alfonso Irigoien berehala konturatu zan arazoaren garrantziaz eta bere indar eta eragin guztiekin ikastolea legeztatzeko proiekttoa bultzatzen hasi zan; handik aurrera biok joaten ginan zein Diputaziora zein Sánchez

Inspektorearekin berba egitera, Irakaskuntza Delegaziora».

Euskaltzaindiaren babesarekin, Julita eta Alfontso Pablo Sánchez inspektorearengana jotzen dute, Ikastola legeztatzeko zer egin behar duten galdez. Zerbait mira eginda eta modu onez hartzen ditu, eta nora jo behar duten bideak erakusten. Agur egikeran, Diputaziora ere laguntza eske, agiri moduren baten bila, joatekotan direla diotsote Pablori. «Si Uds. consiguen esa comunicación de la Diputación, todo podría ser mucho más fácil» ihardetsi omen zien.



San Nikolas ikastolako haurrak andereñoarekin Begoñan, 1958an

Diputazioko presidente zen Fernando de Ybarra, Harriluzeko Markesarekin hitz egiten, eta beronengandik «Dekretu» bat lortzen dute, besteak beste zioena: «[...] dispongo se haga llegar a la Academia de la Lengua Vasca la complacencia con que la Corporación ve la creación de dicho Colegio de Primera Enseñanza, donde ha de cultivarse el vascuence, juntamente con el idioma oficial».

Gabriel Arestirengan ere aurkitzen da guzti honen oihartzunik, garaiko *Hierro* egunkarian dioenean: «[...] la Diputación de Vizcaya ha abierto el primer colegio bilingüe oficial des-



Julita Berrojalbiz Azkueren irudia jasotzen



Elbira Zipitriarekin praktikak egin zituen M.ª Angeles Garai andereñoa

pués de la guerra; Centro docente de bilingüismo [...] donde ha de cultivarse el vascuence».

Abiapuntu hauek eskuan, Julita eta Alfontso Madrila doaz, Ministerioan baimen ofizialak lortzeko asmoz. Hemen dira, baita ere, dela zoriz dela akordioz, Fernando Ybarra eta Antonio Arrue «euskalerriakoak», eta lagun egiten diete. Eta baimena lortzen dute. Bilbora itzultzean, harrera pozgarria egiten zaie, Abandoko estazioan.

Honi guztioni esker, Azkue Ikastola inauguratzen da, Tere Rotaetxerena zen Elkano 6ko etxadian. 1966eko ekainaren 8an Gupride gotzainak bedekintua izan zen, gaztelaniaz

eta euskaraz hitz eginaz: «Poztu egiten gara, gaztelera eta euskera batera ikasteko aukera hau izateaz» zioen Otsagabiako seme Gurpi-de jaunak.

Ikasleriak gora egiten du, ikasgelak txiki gelditzen dira. Urte beteren buruan, 1968an, lokal berria hartzen dute Gran Via 33ko 3. solairuan.



1971-72 ikasturtean, 530 ikasle ari dira R. M. Azkue Ikastolan. Irakasleen artean, Julia Egia da andereñorik zaharrena, Julitak gerra aurretik andereño jardun zuen zenbait kontratatu baitu. 17 dira guztiz, eta Julita zuzendari pedagogikoa. Ahalegintzen dira Pedagogia berriak ezagutzen, Rosa Sentat eta Escolles d'Estiu bezalakoekin batera jardunez.

Erljioaren irakaskuntzak ere badu ardurarik: memoria hutsez aritzea baztertzen dute eta, hain garrantzitsu gertatzen zen Jaunartze ospakizunerako, Jose Antonio Retolaza apaizak material berriak prestatzen ditu.

Jaunartze ospakizunek aparteko eragin soziala izan zuten euskararengan ere, erlijio arloaz gain. 1972ko maiatzeko *Anaitasunak* informatzen zuenez, Bilboko 11 parrokiatan egin ziren euskaraz: «Jaunartzeak euskaraz». Bilbon euskaraz egin ziren lehen jaunartzeei buruzko artikulu bat atera zen *Anaitasuna* aldizkarian non esaten zigun nola Resurrección María Azkue ikastolako 63 haurrek egin zuten jaunartzea, baina baita beste ikastola batzuetako haur batzuek egin zuten hauekin batera eta guztira 12 eliza desberdinetan ospatu ziren euskaraz egindako jaunartze hauek.

Azkue Ikastola zuzentzen zuen Andere Elkartea

- Anejako elizan 15 umek, 10 R. M. Azkuekoak eta beste 5ak parrokiakoak.
- Karmengo elizan 17 umek, guztiak R. M. Azkuekoak.
- San Bizente elizan 5ek, guztiak ikastola-koak.
- San Frantzisko Xabier elizan 7k.
- San Anton elizan 11k, 3 R. M. Azkuekoak, beste 8ak Begoñazpikoak.
- Begoñazpiko elizan 30ek eta guztiak Karmeloko ikastolakoak.
- Andra Mari Pilarrekoan R. M. Azkueko 12k.
- Deustuko Pasiotarren elizan hango ikastolako 18k.
- San Fernando elizan R. M. Azkueko 10ek.
- Asisko San Frantzisko elizan R. M. Azkueko 11k.
- Corpus Christi parrokian 23k, guztiak R. M. Azkuekoak.

Zuzendaritzaren aldetik, Elkanoko Kontseilu errektorea 20 emakumek osatzen dute, gehienak amak, Julita buru, Tere Rotaetxe diruzain, Begoña Insunza ondo-ondoan dutela.

Euskaltzaindiak, bestalde, oso begi onez ikusten du Ikastola honen, eta besteen, bilakaera, eta Euskaltzaindiko izendatzen ditu Julita, Pakita Arregi eta Kermele Esnal, 1967ko martxoaren 25ean.

1967. honetan, bestalde, *Euskarazaleak*, «Euskeraren laguntzarako Elkarte», sortzen da Bilbon, Jesus Oleaga lehendakari eta 12 batzordeko, Julita tarteko.

Julita Bizkaiko ikastolen sorrera-bultzatzaile

Bizkaiko hainbat herritan sortzen diren ikastola berrietan, eragin handia izan zuen Bilbo-ko lehen jarduera honek: Algortako San Nikolas, Deustu, Artxandape, Portugaleteko



Eugenio Agirretxe frantziskotarrak asko lagundu zion Iralabarrin bigarren ikastola sortzen

Astileku, Lekeitioko Resurreccion Maria de Azkue, Markinako Zerutxo, Santutxuko Karmelo, Bermeoko Eleizalde, Elorrioko Funcor, Durango, Gernika, Euba, Ermuko Anaitasuna, Matiena, Zornotzako Andra Mari, Arabako Laudion... Guztiongan izan zuen eraginik, aholkurik eta proposamenik Julitaren adore eta aurrera nahiak.

Villar Palasí lege berria, erronka berriak

Pozik dihardu Julitak, arrakastatsu. Modu bizi-biziz laburbiltzen du garai hau: «Ordu-rarte ume asko egoan, gurasoak oso euska-ra-maitaleak eta oso azkarrak ziren, baina ofizial egin genduanean, ume asko eta asko etorri ziren. Urte guztietan beste pisu bat behar izaten genuen.

Gero etorri zen ordena bat esaten zebana, orain arte egon dana irakaskintza orokorrean, eta orduan etorri zen beste kartilatxo bat edo beste liburutxo bat eskolakoa, eta han hainbeste ume metroko egon behar zirela



Alfonsito Irigoien euskaltzaina izan zuen laguntzaile ikastolak legeztatzeko

esaten zan. Jesus! inspektorea etortzen zen eta oinekin zsa-zsa hasten zen:

—Tantos metros: ¿cuántos niños tiene?

—Pues tantos.

—¡Le sobran a usted diez!

—¿Y dónde los meto?

Eta horrelaxe ibiltzen zen denbora guztian. Eta orduan, lege barria etorri zanean esan geduen: ez, horrela ezin leike, eta gurasoak batu eta hauxe eta hauxe dago. Zeuek pentsatu zer izango litzatekeen onena, baina nik uste onena kooperatiba bat egitea izango litzatekeela. Eta hortik, 1972. urtean, urten eban Laurok».

Izan ere, Luis Villar Palasí 1968an Hezkuntza Ministerioaren buru egitean, irakaskuntza sistemaren berriztatzea gertatzen da. Hurrengo urtean, *Libro Blanco* deritzona argitaratzen du eta, 1970ean «Ley General de la Educación» delakoa. Lege berrian berebiziko garrantzia dauka ikasgelen eta eskola-egoitza guztiaren egoerak, instalazioak eta eskola-toki bakoitzaren hedamenak, Azkue Ikastolak betetzen ez zituenak. Hauexegatik Inspektorearen zsa-zsa oin-hotsa.

Bestaldetik, edonola ere, Lege Berriak Ikastolen alderako zerbait zekarren, «En las regiones bilingües se podrán completar estos conocimientos con el estudio de la lengua vernácula respectiva», baitzioen esan ere.

Josune Zearra eta Julita Berrojalbiz: Begoñazpi katolikoa eta Lauro laikoa

Elkano eta Gran Viako lokalak txiki gelditzean, joera bi gertatzen dira nagusi: Sabin Zubiriren emaztea, Josune Zearra buru dela, Elizarekin harremanetan hasi eta Begoñazpi izeneko Bizkaiko Elizaren egoitza lortzen duena. Zeharo eliztarrak dira, Zuzendaria Elizak



Julita Sopolako etxeko ortuan, 1970ean

berak izenda dezan erabakitzen dute eta irakaskuntza konfesionalaren alde egiten. Ikasle gehienak, Bilbo Zaharreko Espainiaren Bankuan eta Loteria kalean Santiago Katedraleko parrokiaren babesean ziren ikastoletakoak dira.

Julita Berrojalbizen asmoa, oster, ikastola «laiko» baten aldekoa da. Jabegoa kooperatibarena da eta irakaskuntza ez da «konfesionala» izango. Egoitza barruan ez dago «elizarik», nahiz eta mezak eta ematen diren jantokian eta beste. Ez dago kapelaurik ere, nahiz eta estatutuetan «inspirazio kristaua» izango duela agertu. Legeak agintzen duen erlijio-ordua emango da, baina ez zaio andereñoari bere sinesmena ere ikasleen aurrean ager dezan agintzen edo eskatzen.

Josuneren beraren hitzetan, (Lauro eta Begoñazpi) «Enbor beraren besanga bi gara: Lauro kooperatibea da eta Begoñazpi, Elizarena. Nik kexak entzuten nebazan: “Ume honek ezta Gurutze Santearen ez Ave, Maria be ez dakie!”. Eta batzuek inotsoen: “Hori, erlijinoa eta, etxean erakusten da”. Eta neure us-tez etxean eta ikastolan behar zan izan».

Azkue ikastola Lauro ikastola bihurtzen da

san eta egin, Ikastola berria eraikitze-ko asmoak aurrera egiten du. Badira Bilbon bertan egoitza berria jaso nahi dutenak, baina, azkenean, Txorierriko Loiuko Lauro auzoan begiztatzen dituzte lurralde politak. «Lauro Txiki» izeneko baserritxo bat dago bertan, eta Ikastola berriari Lauro izena jartzea erabakitzen dute. Lehen batzordea 16 gizonetako osotzen du —Bilboko Azkuen guztiak ziren ugazabandreak—, lehendakari Josu Beldarrain etxagina dela.

Cooperativa de enseñanza LAUOK eta bere Kontseilu errektoreko lehen-



Lauro ikastola 1972an zabaldu zen, Julita zuzendari pedagogikoa zela

dakariak, J. Beldarrainek, Bilboko Pilar Careaga alkatesari gutun bat idatzi zion 1970eko abenduan. Ikastola berria Lauroko lurretan eraikitze baimena eskatzen zuten: «[...] solicita licencia de obras para construir un Colegio que se dedicará a la enseñanza Pre-Escolar, General Básica y Bachiller Superior [...]». Eskariarekin batera, planoak.

(Baimenak Bilboko udalean eskatu ziren, garai hartan Loiu «Gran Bilbao» delakoan sartzen baitzen. Desanexioa Eusko Jaurlaritzak burutu zuen, eta agindua ematen zuen 1983ko otsailaren 20an, Loiuri zegokion eta Bilboko

Udalean zen dokumentazio guztia Loiura eramana izan zedin, Lauro Ikastolari dago-kiona barne).

1970eko abenduaren 22an Bizkaiko Osasuneko Buruzagitzak ematen dio erantzuna R. Beldarraini, proiektua martxan jartzeko baimenarekin: «Examinado el Proyecto y planos [...] esta Jefatura estima que dicho Colegio, según el proyecto presentado, reúne óptimas condiciones higiénico-sanitarias, por lo que procede declarar *apto* [...]».

1971ko azaroaren 27an, Bilboko Udalaren lizentzia heltzen da, ikasgela, jantoki, jolasle-kuek... izan behar zituzten baldintzak 24 puntutan markatuz, guztiok bete beharrekoak, eraikitzen hasteko baimena aurrera atera ahal zedin, eta hauek kontutan eduki behar ziren beti, eraikina onartua izatea nahi bazeen. (Puntu guzti hauek baldintza urbanistiko-teknikoez hitz egiten dute), eta zioen, besteak beste: «[...] se le concede licencia de obras para construir un Colegio [...] no existe inconveniente en que se autoricen las obras, máxime teniendo en cuenta que según Certificado Municipal que precede a la solicitud, ha sido considerado el proyecto como de *interés social*».

Hilabete geroxeago, hots, 1971ko abenduaren 3an, Ricardo Andrés Medina Salvete Bilboko Udaleko abokatu eta sekretarioak, Udalaren izenean, erantzuten zion Beldarrainen eskariari, esanez: «[...] estima esta sec-

ción que la idea es altamente beneficiosa para los niños de Lujua, recientemente anexionada a la Villa, en la cual por otra parte, teniendo en cuenta que en los planes de urbanización de la misma se prevén polígonos para la construcción de viviendas y pequeñas industrias, el centro propuesto por la Cooperativa de Enseñanza Lauro resolverá, sin duda, un inmediato problema de enseñanza, por lo que puede considerarse de *interés social*».

Ikusten denez, Udalean edo ez zuten ulertu zein zen Julita eta beren asmoa, hots, Bilboko Azkueko ikasleak Laurora eramatea, edota ez ulertuarena egin zuten.

1972ko ekainean, espainiar Estatuaren Lan Ministerioak adierazten zion kooperatibari, onartuak izan zirela Lauro kooperatibak aurkeztutako estatutuak: «[...] ha tenido a



Berrojalbiz Julita Egia gerra aurreko andereñoari egindako omenaldian

bien aprobar e inscribir los Estatutos de la Cooperativa de Enseñanza *Lauro* [...]».

Ikusten denez, ez eskariaren aldetik ez baimen emaleen aldetik, ez da inoiz ere elebitasunaren auzirik aitatzen.



Zumaldek irudikatutako Julita Berrojalbiz, Lauro ikastolako liburutegian

Eraikuntza Beldarrainen beraren esku gelditzen da. Arkitektoak, Nikola Madariaga eta Lander Gallastegi: teilatu gorria, kristalera zabalak, porlanezko zutabeak biluzik eta jolas leku handiak.

Etzegintza gizonezkoen esku badago ere, eskola bizitza Julitak gobernatzen du. Zenbait irakasle eta irakasle ez den langile Azkuetik dakartza, Pilar Muniategi eta Juli Egia barne. Hauetariko bi, egun ere —2005ean—, Lauro horretan ari dira: Mertxe Sagarna eta Txaro Arriaga.

Bazkideak 500 dira eta ikasleak, kasik 1.000. Nagusienek OHOk zazpigarren mailari ekiten diote.

Garai hartan «ezker abertzalekotzat» jotzen zen *Anaitasuna* aldizkariak «Lauro euskal kolegioa» titulupean jarraiko berri haxe eman zuen: «Bilboko 120 bat euskaltzalek elkarte,



Julita eta Jose Andres, Isabel alabak Zuzenbideko titulu-birreta jantzi zuen egunean, 1975ean

edo baita ere deitu ahal zaion kooperatiba bat biribildu dute. Hau, Lauron (Loiun) euskal eskola handi bat eraiki ahal izateko. Beraien lehendakaria Josu Beldarrain gizon prestua da. Bizkaiko banketxeek utzitako finantziarioari esker, lurralde zabal batzuk erosi dituzte Lauron. Ondoren legeak agintzen dituen plano eta beharrezkoak diren gauza guztiak Madrilera bidali dituzte. Ministerio de Educación y Ciencia-k ahalegin horrek ontzat eman ondoren, Ministerio de Vivienda-k, Banco de la Construcción delakoaren bidez, 10 milioi pezeta eman deusez, kolegio hori egin ahal izateko: milioi bat hogeitaren buruan berriz ordaintzeko eta beste bederatiak dohan izango direnak.



Julita Berrojalbiz bere bilobatxo batekin

Kolegio hau egin daitenean, mila umerentzako tokia izango du. Orain, amets hori aurrera eroan ahal izateko Bilboko Udalaren baimena behar da, Loiu Bilbo barruan sartzen baita». Villar Palasíren Legean ez da behin ere «eskola» hitza erabiltzen, «Colegio Público» baizik. *Anaitasunaren* euskal bertsioan, ordea, garaiko ezkertiaratasunaren airea bistakoa da.



Jose Andres Andia, Julitaren senarra, bilobatxoarekin

Lauroren inaugurazio ofiziala eta klandestino

Lauro Ikastolak bi inaugurazio izan zituen 1973an: lehena ofiziala eta bigarrena klandestino. Ofizialean, inspektorea eta beste zenbait goi kargu izan ziren, masta gainean Espainiako bandera ezarri.

Inaugurazio ofiziala gertatu zen egun berean, klandestino ere izan zen, gauerdian: espainiar bandera jaitsi eta ikurrina izan zen altxatua, Kontseilu errektoreko zenbait kide urduri baina ausart zirela. Era berean, Bilbotik Ikastolarako bidean, haitz handien azpialdeko bihurtune gogorrean, «Gora Euskadi Askatuta» deia agertu zen. Isilean, baita ere, J. M. Leizaola lehendakariaren bisita izan zuen egoitza berriak.

Inaugurazioa egin eta egun gutxitara, irakasleen bazkari ordu eta mahaian, Julita Berrojalbizek Kontxa Azaola jarri zuen bere eskuinean, aparteko bazkaltiar legez. Kontxa Emakume Batzairen lehendakaria izana zen gerra aurrean.



Julitaren filosofia

Julitak, bere aldetik, «Ikastolaren ezaugarri nagusia euskara ikastea eta euskaraz berba egitea da» esan ohi zuen, behin eta berriz. Ez zuen eskolarik ematen, baina bere presentzia ezagun-ezaguna zen, diziplina akademikoa betea izan zedin. Bizkaitarra izan arren, irakaskuntzaren etorkizuna euskara batuaren bidetik zetorrelakoan zegoen eta, erlijioaren aldetik, «eskolan irakatsi egiten da, baina hau ez da katekesia, irakasten duen andereñoak ganoraz egin behar du, baina ezin zaio sinesmena ager dezan eskatu».

Zenbaitetan zenbait gurasok ikasleek uniformeren bat izan behar zutela eskatu bazuten ere, ezezkoaren alde egiten zuen. Era berean, Ikastolaren lurraldeak hesituak edo hertsia behar zirela eskatzen zutenei, nahiko zela iragarki batek sarrera atea non zegoen adieraztea esan ohi zuen.



Iruñean 1977ko Aberri Egunean, bere ezkerrean ikurrinarekin Begoña Insunza

Julita Jose Andres senarrarekin Sopelan, 1986an

Julita eta ikastola berriak Bizkaian

Zuzendaritza horretaz gain, Julitak ikastola berriak sortzeari ekin zion, edota sortzen laguntzeari, Bizkaiko hainbat herritan. Bera izan zen ikastola horietan bultzatzaile eta laguntzailea, hala nola Algortako San Nikolasen, Deustuko ikastolan, Artxandapekoan, Portugaleteko Astilekun, Lekeitioko Resurrección María de Azkuen, Markinako Zerutxon, Santutxuko Karmelon, Bermeoko Eleizalden, Elorrion, Durangon, Gernikan, Euban, Ermuan, Matienan, Arabako Laudion...

Ikastoletako lanetatik aparte, udalekuez ere arduratu zen, eta Euskerazaleak elkarteko lanetan ere parte hartu zuen.

Ondo merezitua, Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen 1967 urtean, eta oho-rezko euskaltzain 1998n.



Iñaki Etxezarreta, Jesús Atxa, Antonio Campos eta Julita Berrojalbiz, 1992an


Julitaren kargu uztea Lauron

70eko hamarkadan indartsu ari dira ikastolak. 75-76 ikasturtean, Lauroko ikasle zaharrenek OHO amaitu dute eta lehen batxilergoari ekiten diote. Legeak agindu lege, maila berri honetarako zuzendari pedagogikoak lizentziaduna behar du izan. Julita andereño da, magisterioduna. 53 urte dauka, adoretu ari da. Kontseilu errektorekoek lizentziaduna jarri nahi dute Zuzendaritzan. Hazkundera handia izan da, kasik arrapaladan gertatua. Julitak, min samin isilez, utzi egiten



Euskaldunon Egunkariako «Sortzen Taldea»

du irakaskuntza. Beste 22 urtez, Ikastola berrien sorreran lagunduko du, adiskide zaharrek in elkartuko da, etxea zainduko —ilobak Lauron inskribatuko— eta Euskal Herriarentzat bere eskuez landatutako arrosa ederraren berri emango ondorengoei.



Euskaldunon Egunkariak argitaratutako eskela, 1998ko azaroaren 3an

Karmelo Etxenagusiaren agur-hitzak hileta egunean

Bilboko aita Agustindarren elizan 1998ko azaroaren 3an, ziotson Karmelok eliz-agurra egiteran: «Gure Julita ama on eta samurra izan da seme-alabentzat: andra argi, eragile eta ekintzailea ezagutu dogunontzat; euskaltzale txalogarria, euskeraren alde hainbeste lan eta burruka egindako emakumea, euskaldun zintzoen eta euskal erakundeen esker ona irabazitakoa».

Euskaltzaindiaren Ribera 6ko egoitzan, Orixeren *Euskaldunak* irakurri eta komentatu ohi zuten Julita eta beste ikasleek Xabier Peñaekin. Seguruenetik buruz ikasi izango zuten hasierako zortziko txikia:

Zatozkida, Goi-arnas.
eizu nerekin lan,
erri baten arnasa
mamitu dezadan.
Geroak esan beza:
erri bat izan zan;
edo-ta ats emaiogun.
ontan iraun dezan.

Julitaren bihotz-muinean azken bi puntuek egiten zuten dar-dar. Ajangiz euskaldunetik Bilboko kalera etorria, amets eta borroka egin zuen Euskal Herriak «ontan iraun dezan».

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Berrojalbiz familiari
 - Auñamendiri
- HABEri
 - Gipuzkoako Ikastolen Elkarteari

Liburu erabilienak

- AMEZUA PUELLÉS, Iñaki: *Mila esker, andereño*. Lasarte-Oria, 2005.
- ANAITASUNA: «Lauro euskal kolegioa» in *Anaitasuna*, 1971.IX.30.
- ANAITASUNA: «Jaunartzeak euskaraz» in *Anaitasuna*, 1972.V.30.
- ARESTI, Gabriel: «Homenaje a Kirikiño y a la cátedra de la lengua vasca» in *Hierro*, 1966.VII.9.
- ARRIEN, Gregorio: *Bizkaiko Ikastolak, 1957-1972*. Donostia, 1992.
- ASTIZ, Miguel Ángel: «Se bendijo ayer el primer colegio bilingüe» in *La Gaceta del Norte*. Bilbao 9.VI.1966.
- AZPIRI, Beatriz: «Juliana Berrojalbiz» in *Habe*, 141.
- ETXENAGUSIA, Karmelo: «Julita Berrojalbizen hiletan» in *Euskerea nire bizitzan*. Bilbao, 2003.
- GARMENDIA, Elixabete: *Bidegileak: Maria Angeles Garai*. Donostia, 2002.
- GEREÑO, Xabier: «Julia Berrojalbiz-en omenez» in *Euskera*, 1999-I.
- GURPIDE, Pablo: «Euskera-gaztelera irakaskintza» (R. M. Azkue ofizial bihurtzean irakurria) in *Zeruko Argia*, 1966.VII.17.
- IRIGOIEN, Alfonso: *Sorterriaren alde*. Bilbao, 1975.
- LOIUKO UDALAREN ARTXIBATEGIA: Baimen-eskari-erantzun Dokumenduak. (Polentzi Soldevillaren kortesia).
- RETOLAZA, Jose Antonio: *Umien leen autortza eta lehen jaunartzerako gertabide*. 1967. (Argitara gabea).
- ZELAIETA, Angel: «Josune Zearra, ikastolen sorreran jardundakoa» in *Euskaldunon Egunkaria*. 2001.VII.I.

Zuzendaritza:	Mikel Atxaga
Argitaraldia:	I.a, 2005eko abendua
Ale-kopurua:	3.000
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria:	Edorta Sanz
Fotokonposizioa:	R.G.M., S.A.
Inprimaketa:	R.G.M., S.A. Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao
ISBN:	84-457-2370-7 (Lan osoarena) 84-457-2371-5
L.G.:	BI - 3287-05

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística